


1- ENTZUN AURRETIK

   1.1 Inoiz egin al duzu?

Kirol edo zaletasun berezien inguruko “Inoiz egin al duzu...?” galdeketa prestatuko dugu. Osatzeko erantsi galdera gehiago eta ondoren zure lagunari galdetu.

- Joan al zara inoiz lagun batekin patinatzerara izotz-gainean?
- Ibili al zara inoiz belaontzian?
- Egin al duzu inoiz safariren bat?
- Igeri egin al duzu inoiz gaez itsasoan?
- Egin al duzu inoiz urpeko arrantza?
- ..



Ikus elkarrizketa adibidea:

- **Aizu, Jon zu itsasoan gaez inoiz bainatu al zara? Zoragarria da!**
- ☐ **Ez, inoiz ez, eta zu inoiz ibili al zara belaontzian?**
- **Ez, sekula ez. Baina behin, gaztetan, piraguan ibili nintzen. Oso ondo pasa nuen!**

Zein iruditu zaizkizu kirolik bitxiak edo probatzeko modukoak? Idatzi hemen gutxienez horietako 3 eta eman arrazoiak. Azken jardueran beharko dituzu.

2- ENTZUN BITARTEAN

2.1 Zer gertatzen da?

   Entzun audioaren lehen zatia eta erantzun galderari. Ondoren, binaka, komentatu zuen erantzunak.




1. Josuk kirol asko egiten al du?

.....

2. Zer proposatu dio Amaiak Josuri egitea patinak jantzi eta gero?

.....

2.2 Ez zara patinetan inoiz ibili?

   Orain entzun audio osoa. Ezkerreko zutabearen elkarrizketan esandako zenbait komentario eta galdera daude. Lotu horiek bideoan eman zaien erantzunarekin.

Lehen atala	Bigarren atala
<p>Badakizu kirola egin beharra dago. Baina bihar sekulako mina izango duzu Sekula ibili al zara patinetan? Jurasikoak izango ziren, seguru! Hori dena jantzi behar al duzu?</p>	<p>Sekula ez. Eskerrak Oierrek bere patinak utzi dizkidan. Seguru. Baina, patinatzea ez da hain zaila izango, ezta? Kontua da gutxitan joaten garela elkarrekin kirola egitera. Horixe! Kirol honetan ezinbestekoa da babestuta joatea. Beno, glukosa pixka bat hartu eta kito</p>

Ariketa egin ondoren, entzun berriro audio osoa, transkripzio eta guzti. Eta alderatu erantzunak lagunarekin.

3. ENTZUN ONDOREN

3.1 Jarri arreta hizkuntzan.



Gogoratu elkarrizketaren zati hauetan azpimarratutako egiturak:

AMAIA.— **Sekula** ibili al zara patinetan?

JOSU.— **Sekula ez.** Eskerrak Oierrek bere patinak utzi dizkidan!

JOSU.— Hori dena jantzi behar al duzu?

AMAI.— Horixe. Kirol honetan **ezinbestekoa da** babestuta **joatea**.

Inoiz eta Sekula nola erabili?

GALDERETAN: Gaztelaniazko "nunca" eta "alguna vez" esateko moldeak dira. Eta biak berdin erabiltzen dira.

- **Inoiz** ibili al zara patinetan? = **Sekula** ibili al zara patinetan?
- Ez al zara **inoiz** patinetan ibili? = Ez al zara **sekula** patinetan ibili?

EZEZKOETAN: Gaztelaniazko "nunca" eta "alguna vez" esateko moldeak dira. Eta biak berdin erabiltzen dira.

- **Sekula ez** (naiz joan). = **Inoiz ez** (naiz joan).
- Ez. Ez naiz **sekula** joan. = Ez. Ez naiz **inoiz** joan.

BAIEZKOETAN: Gaztelaniazko "alguna vez" esateko moldea **Inoiz** da.

- Bai. **Inoiz** joan naiz. = Bai. **Sekula** joan naiz. * (**Ez da zuzena**)

Aholkuak emateko:

Ezinbestekoa, derrigorrezkoa, garrantzitsua... IZAN + Aditza -T(Z)EA

- Patinetan ibiltzeko ezinbestekoa da babestuta joaTEA
- Garrantzitsua da kaskoa janzTEA.

3.2 Hau beldurra!



Elkarrizketa hauetan lehen azpimarratutako egiturak landuko dituzu. Osatu elkarrizketa hauek laukitik egitura egokiak aukeratuta. Ondoren, alderatu erantzunak lagunarekin eta antzestu taldeko denen aurrean, doinua zainduz.

urari beldurrik ez izatea / nor ez da sekula piraguan ibili? / beharrezkoa al da? / ez duzu sekula kirolik egin ala? / sekula ez zara ibili

- Beno, ba, gaur piraguan ibiltzen ikasiko dugu. Zuetatik (1).....
- Ni ez naiz sekula ibili.
- Eta uretan ere(2)..... ala? Egin jauzi motel!
- Banoaaaaa!
- Beno, piraguan ondo egiteko ezinbestekoa da (3)..... Hartu piraguak eta goazen uretara.
- Eta kaskoa janztea (4)..... Nik ez dut ekarri.
- Baina zuk(5)..... Horixe baietz!



haizea egotea / Sekula ez naiz parapentean ibili / altuerari beldurrik ez izatea / Ez da hainbesterako



- Ea ba, Ane, mugi! Haizerik gabe geratuko gara!
- Ai, ene! Beldurtuta nago.(1).....
- (2)..... neska! Hara, berriz! Orain haizerik gabe geratu gara!
- Eta zuk diozun bezala: "Parapentean ibiltzeko beharrezkoa da(3)..... ezta?"
- Bai, eta oso garrantzitsua da(4)..... Egin jauzi behingoz, neska!

3.3 Zuk egin al duzu sekula?

Gogoraten 1.1 ariketan apuntatutako gauzarik bitxienak? Jarri binaka eta aukeratu horietako bat (edo probatzeko moduko beste bat) eta egin galderak zure albokoari. Ondoren, zure lagunaren erantzunak beheko taulan apuntatu.

Nork egin du?	Zer?	Zer da/ez da beharrezkoa / ezinbestekoa?
Jones eta Anek	Globoan ibili	Beharrezkoa da altuerari beldurrik ez izatea. Ez da beharrezkoa gidari ona izatea.

Irakurri elkarrizketa-adibidea:

- *Aizu Jon, zu eskaladan sekula ibili al zara?*
- *Bai, unibertsitatean behin ibili nintzen, ikastaro bat egin nuen-eta.*
- *Ah, bai? Eta zure ustez, zer da ezinbestekoa eskalada egiteko?*
- *Lehendabizi, ezinbestekoa da sasoi fisiko ona izatea eta gero, nola ez, mendia gustatzea.*



Orain irakasleak taula hori arbelean jarriko du. Kontatu taldekoei zure lagunak emandako erantzunak, eta irakasleak taulan apuntatuko ditu. Ondoren, errebisatu taula eta adostu: nor da taldeko kiderik ausartena edo bitxiena? Eman arrazoiak.